



HESIA URRATURIK

Xabier Lete in memoriam

JOXAN GOIKOETXEA





HESIA URRATURIK

JOXAN GOIKOETXEA

Lagunarteko gure berriketaldi luzeetan, Xabier Letek, nire jarduera artistikoaren onerako, atsegin handiz ekiten zion gai hau argitzeari: ea zertan jardun behar nuen nik bete-betean, nire interpretatzaile alderdian ala musika sortzailearenean. Xabier bera ordenazalea zenez, bietako bat hautatzeko iritzikoa zen, ahal zen denbora eta energia guztia hari eman niezaion.

Asmo horri jarraituz, 2007. urtean, bihotz eman zidan *Innervisions* lanerako. Nire bizitzako une zertxobait zailean egindako musika-sorta berezia argitaratu nuen; hemezortzi piezako grabazioak osatzen zuen CDa. Eta Xabierrek, ni lana egitera bultzatzeaz gain, hitzaurrea ere idatzi zion diskoari. Berak irakurri zuen, garai hartan eman nituen hainbat kontzerturen aurkezpen gisa.



Gure kontzientziaren eta gure arimaren hondorik sakonenetara jaurtikitako ainguraren antzekoa da musika; kontzientzia eta arima, bi-biak, erro-errotik hunkituak eta ukituak sentitzen direnean, eta orduan bakarrik, bihurtzen da musika mintzaira argigarri, mintzo zaigularik bai existitzen den guztiaren maila gorenaz (Fray Luisek Francisco de Salinas musikariari eskainitako bere poeman bikain adierazi zuen bezala), bai kosmoaz, eta, aldi berean, baita geure intimitaterik gordeenaz ere. Ikara eta kontzientzia: horra hor musikaren mintzairak bere joa gauzatzeko darabiltzan bi ingudeak. Ikuspegi tekniko eta formaletik, soinuazko arkitektura da musika; bere zentzurik sakonenean, aldiz, bilaketa-eta topa-gunea (elkargunea) da. Hunkitzen eta inarrosten gaituzten musikek erro-errotik ukituta sentitzengarenean, gure memoriaren gune gordea berreskuratzen dugu, eta hantxe kokatzen gara; eta memoria hori, gudan estilo, oihartzun eta gustuei dagokien identitate (partekatu) halako bat loratu zeneko uneez mintzo zaigu. Musika, beraz, Joxan Goikotxearen disko honetakoa barne, haxe dela esango nuke nik: zentzumenen asalduraren bidez, bizitzaren harat-honatean elkarren hurbileko eta kideko egiten gaituela sumatzen dugun lekua. Eta, hortik aurrera, musika geratzen zaigu, hitz eta arrazoibide oro gainditzen dituen une hori. Izan ere, gure baitako barrenik hunkituenean bakarrik argitzen ahal baita zinez musika.

Urtebete lehenago, Xabierrek kontzertu bat eskatu zidan zendutako bere emazte Lourdes Iriondorentzat, haren heriotzaren lehen urteurrenerako. Orduan prestaturiko errepertorioa abiapuntutzat harturik hasi zen itxuratzen nire egitasmoa. Uste dut ordurako Xabierren iritzia zela nik musika interpretatu egin behar nuela.

Nire jardunbidean jasotako bizigarri nagusia Xabierrek emandako erabateko babesa eta sostengua izan dira. Alabaina, orduan, hark ez bezala, nik ez nekien ondo zein bide hautatu behar nuen. Une ezegonkor hartan, ez nuen behar den motibaziorik bideari berriz ekiteko. Izan ere, oso gogoan nuen hark behin nire sorkuntza lan baten harira esan zidana, elkarrekin eman genituen kontzertu eta grabazioetan —urte haietan egin ahal izan zituen bakanetan— adierazitako miresmen samur hura baino lehen. Hernanin izan zen, 1995ean, Fritz Lang alemaniarraren *Metropolis* filmerako idatzi eta interpretatu nuen hots bandaren lehen emanaldian. Menturak nahi izan zuen Xabier emanaldira joan eta harrituta geratzea. Aukera zuen aldi oro gogoratzen zuen jendaurrean zer nolako zirrara eragin zion egun hartako ordu eta erdi baino gehiagoko piano eta sintetizadore interpretazioak. Gogoko izaten zuen hori kontatzea, eta baita *Elorrabi* baserriko semea nintzela esatea ere, bitxikeria gisa, haren ohiko sarkasmo histrionikoz. Beti uste izan dut nire lan musikala hura izan zela gure adiskidetasunaren eragile.

Adiskide maite: jaso nuen zure CD berria eta egun hametan entzuten ari naiz, oso gustura. Sormen bereziko pertsona zara, eta, nolabait esateko, intertestualtasuna espresio moldeetan lantze horrek zure lanari interesa ezartzen dio. Osoitzen naiz Hernaniko kontzertuaz, Fritz Lang-en pelikularen horniduraazko musikaz; mundu hartan musikaz sartzea abentura bat zen. Oso sintesi ona lortzen zenuen. Harrituta atera nintzen. Ongi izan zaitezela desio dut, eta izpiritunak -"arriasa" omen da izpiritua- zure sormena piztu dezala.

(Urnieta, 1997ko martxoak 19)

Izan zen beste musika lan bat ere, nirea izanik, elkarrekin partekatu genuena: 2006an Hernanin egin zioten omenaldiaren lehen emankizuna. *Adiskide bat bazen* izenekoa Xabierren abestietan oinarrituta egindako pot-pourria zen, eta bandarentzat eta koruarentzat idatzi eta orkestratu nuen. Haren esker oneko eta bihotzetiko erantzunak maitasun handiz dirau oraindik jendearen oroimenean. “Zer moduz, Xabier?”; eta, hark: “Aurrean entzun dudana, oso ondo, baina atzetik entzundakoa, hobeto” —jendeak kantuz lagundu baitzion orkestraren musikari—.

Baina nire interpretatzaile izaera eta irudia Xabierri betiko lotuta haren *Egunsentiaren esku izoztuak* poesia liburuaren errezitaldietan geratu ziren, nire akordeoiak laguntzea erabaki baitzuen. Bi urte izan ziren, haren bizitzako azkeneko biak. Haietan, beste inoiz baino momentu gehiago igaro genituen elkarrekin, eta gure adiskidetasuna estutu egin zen. Halaber, era sakonean antzeman nuen ezohiko ezaugarriak zituen gizona zela, eta haren gizatasunak, adimenak eta alderdi espiritualak modu erabakigarrian eragin zioten nire izateari. Hala bizi izan nuen, Iruñean izan zen lehen emanaldiaren egunetik hasita —Mikel Laboa zendu eta biharamunean, hain zuzen— Ataunen eman genuen azken saioraino —Jabier Imaz laguna omentzera joanda—. Hamabi esperientzia ia erlijioso izan ziren. Aretoak miresle zintzoz mukurru, ia beti. Xabierren bizitza gogor eta neketsuaren amaieraren lekuko gertatu ahal izan nintzen: bizitzan zehar laguntzen eta inarrosten zuten zalantza existentzial askoren amaieraren eta ebazpenaren lekuko. Eta ikusi nuen nolako umiltasun eta duintasunez agurtu zen oso barruko zituen haiez, 25 urtez gaixotasun kroniko bat izan eta etsi onean eramanez ondoren.



Heriotzaren gaia beti izan zen Leteri oso lotutako ezaugarria: Xabierren jarduera poetikoaren *leitmotiv* nagusia izan zen. Haren hurbileko batek esan zuen bezala, bizitza osoan hiltzeko prestatzen aritu balitz bezala izan zen. Xabierrek, izatearen azken ataka garrantzitsu horretan ere, zehatz adierazi zuen bere nahia. Besteak beste, nahi izan zuen bere hiletan Felix Zubiak, haren sendagileak, bertso bat botatzea eta nik pieza musikal bat jotzea; eta halaxe izan zen, jendez beteriko Urnietako parrokia elizan. Gurari hori ezagutu nuenean, mahai baten inguruan esan zuen zirtoaz gogoratu nintzen: “egun hori iristean, jarri itzak guztiak negarrez”.

Gogoan dut oso egun zaila izan nuela. Lanak izan nituen neure burua lasaitzen eta aginte minbera hura betetzen. Jose Maria Setien jauna, orduan gotzain emeritua, hurbildu zitzaidan, eta honela mintzatu: “Konturatzen al zara zure ohore handi honetaz? Itxura denez, Xabierrek oso maite izango zintuen, hori eskatzeko...”. Zaila izan zitzaidan zer jo erabakitzea. Beste hainbat egoeratan bezala, Fernando Larruquert adiskide bihotzekoari aholkua eskatzea bururatu zitzaidan. “Gaztea banintz eta zure gaitasuna banu —esan zidan—, inprobisatu egingo nuke”. Eta horixe egin nuen.

Xabierrek eskaini zizkidan adiskidetasuna eta geriza edonor erraz ohitzeko moduko abaroa izan ziren niretzat. Jakin banekien zehatz-mehatz erantzun behar niela halako pertsona zorrotz eta buruargi baten jomugei, baina egiazko buruhaustea haren heriotzaren ondoren etorri zitzaidan: ez bakarrik utzi zizkidan hasierako hutsune eta zurztasun izugarriengatik, baita erabakiak hartzeko nuen beldurragatik ere eta sentimendu eta pasio handixeagoz haren obraren eta pentsamenduaren jendarteratzea planifikatzeagatik. Asmo horrek iluntzen zidan eta iluntzen dit burua oraindik ere. Gidoi hori ez zuen idatzita utzi. Bere izaera pesimistak eta hantustekeriarik gabeak eraginda, betebeharra besteen gain uztea hobetsi zuen. Cesare Pavese-ren poesian aipatzen den epitafio hartara errenditu zen —“*Last Blues, to be read some day*”—, Xabierrek beretzat nahiko lukeenera: “Izan zen gizon bat / saiatu zena / baina ez zuena asmatu”.



*'T was only a flirt
you sure did know-
some one was hurt
long time ago.*

*All is the same
time has gone by-
some day you came
some day you'll die.*

*Some one has died
long time ago-
some one who tried
but didn't know.*

Behin eta berriro zetorkidan burura Xabierri mila bider entzundako esaldia: “Ni hiltzean, egin ezazue nahi duzuen”. Baina, egiazki, ezin genuen edozer gauza egin.

Laguntzeko etababesteko prest nituen ekimenetatik—kanpokoetatik—aparte, neure kabuz ere zerbait egiteko promesa irmoa egin nion neure buruari. Horrelakoetan nire jarrera inpultsiboak erabaki izan du nola aurre egin egoerari: zailtasun handiko zerbait —nire mugen barnean—sortu eta idatziko nuen, ahalegin nabarmena eskatuko zidana, eta, bidenabar, Xabierrek begi onez ikusi eta onetsi zezakeena; ez hark atsegin izango zukeena bakarrik, baizik eta haren estiloari, pentsamoldeari eta sinesmenari ere lotu niezaiekeena. Bizi izan zen bitartean eskaini zidan guztiaren esker on gisa egingo nuen.

Laster, hasierako oldarraldiari itzuri egin ezinik oraindik, erabaki nuen obra musikal bat, oratorio bat, idatziko nuela, eta *HESIA URRATURIK* izenburua jarriko niola. Testu honetan erabaki hori zergatik hartu nuen azalduko dut, eta baita prozesuaren hezurmamitzea kontatu ere.

Asko falta zen obra asmatu eta idazteari ekin niezaion, eta baita horretarako behar nuen argia piztu zekidan ere. Hasiera hartan, *Xabier Lete gogoan* emanaldian parte hartuz bideratu nuen nire egonezina. Joxeanjel Arbelaitzek jarri zuen martxan proiektua, Xabierrek bera desagertzean legezko ordezkari izendatu zuen lagunak, eta 14 kontzertu ospatu ziren, omenaldi eta errekonozimendu gisa. Zenbait bertsolari, poeta eta musikariren bateratzea izan zen hura, Euskal Herrian aspaldian izan ez zen bezalakoa. Jendea, *Egunsentiaren esku izoztuak* liburuaren errezitaldietara bezala, erruz etorri zen. Iruditzen zait erreakzio katartiko bat izan zela, jendeak Xabierri zion —eta dion— maitasun eta miresmena agertzeko modu bat, eta zuzenean publiko gisa gutxitan ikusi izanak eragindako egarria asetzeko modu bat ere bai.

Lehen emanaldi multzo hari bigarrenak jarraitu zion: *SDB-Sortuko dira bestea* emanaldiaren lan artistikoa eta musikala neuk zuzendu nuen. Katarsia, publikoarena ez ezik, elkar ezagutzeko aukera izan genuen musikariona ere izan zen orduan. Hainbat belaunaldik, estilok eta joerak bat egin genuen, eta hogeitaka gala egin genituen bost urte baino gehiagoan.



Hurrengo urteetan, Xabier Leteren figuraren eta obraren inguruko beste egitasmo batzuk joan ziren loratzen. Esate baterako, Pier Paul Berzaitzek *Egunsentiaren kantak* (2015) proiektu garrantzitsua ondu zuen. Xabier Leteren mandatuz, azken liburutik hautatutako poema batzuk musikatuta osatu zuen diskoa. Sormen eta gorpuzte prozesuak luze iraun zuen; pozbide handia izan zen niretzat, eta, halaber, Pier Paulen eta bion arteko adiskidetasuna sendotu egin zen. Beste proiektu bat *EzpaLetenak*

(2015) izan zen, Gotzon Huegunek eskultura baten inguruan egiten zuen zuzeneko *performance* bat. Leteren unibertsoari behatu eta hartaz hausnartzeko gonbidapen delikatu zen. Azkenik, *Gabon Txirrita* (2016) aipatu behar. 1970eko hamarkadan idatzi zuen Xabierrek antzerki lan hura, eta Urnietako zenbait herritarrek mira handia zion. Obraren hiru emankizun egiteaz gain, antzerki testuaren edizioa kaleratu genuen, Leteren estimu handiko ondaretik egokitu zitzaidan eskuizkribua abiapuntu hartuta.

Guzti horren ondoren, geratzeko unea iritsi zen. Giuseppe Ungarettiren hitzak bere eginez eskatu zigun Xabierrek isiltasun aldi hura: *non gridate più*, ez gehiago oihurik egin.



*Cessate di uccidere i morti
non gridate più, non gridate
se li volete ancora udire,
se sperate di non perire.*

*Hanno l'impercettibile sussurro,
non fanno più rumore
del crescere dell'erba,
lieta dove non passa l'uomo.*

Ez gehiago oihurik egin,
hil zirenei ez berriro heriotzarik eman,
ez oihurik egin, ez oihurik
berriro entzun nahi badituzue
salbamina espero baduzue.

Beraien hotsa xurrumurru sotila da,
ez dute soinu gehiago egiten
belarrak haztean baino,
zoriontsu gizona ez dabilen tokietan.

Isiltasun une hark aukera eman behar zidan *HESIA URRATURIK* idazteko beharko nituen baliabideez gogoeta egiteko. Konturatu nintzen baretasuna itzultzen hasia zela nigana, eta horrek Xabier Leterekin harremanetan jartzeko modu berri bat emango zidala. Barne dolua amaituta, haren bizitzaren eta obraren eduki eta ñabardura berriak bildu nitzakeen; berrikusiz, ikertuz eta ikasiz, harengana hurbiltzeko eta harekin hartu-emana izateko era berri eta atsegina osa nezakeen.

Baina *HESIA URRATURIK* obraren ñabarduretara jo aurretik, arestian aipatu dudan norbait berraipatu nahi dut. Kontakizun honetako beste aldi hau, dimentsio berri batera ematen duen leiho edo ate batekin konparatuz gero, Joxeanjel Arbelaitz litzateke leihoaren eskuleku edo atearen giltza, hemen laburbildu ezin daitezkeen hainbat eta hainbat gorabeheraren gertu-gertuko lekukoa izaten utzi didan pertsona. Une ugari pasa ditugu elkarrekin. Batzuk oso atseginak izan dira; beste batzuk, ez hainbeste. Urte guzti hauetan nigan jarri dituen konfiantza eta erantzukizuna eskertu behar dizkiot. Bide luzea dugu egiteko oraindik. Gaur arte igaro ditugun uneetatik bat aipatzekotan, Xabier Letek 1999ko irailaren 25ean Erreterian eman zuen azken kontzertuan jasotako soinuen grabaziotik sortu zen CDa gauzatzea aipatuko nuke. Grabazio hori, Joxean Ezeiza adiskideak arreta handiz gordeta zuena, Leteren egiazko testamentu musikal bilakatu da. Disko horren edizioak zer nolako garrantzia duen pentsatzera naramate kontzertuaren inguruabarrek —argitalpenaren ondoren arazo mordoa nozitu behar izan bagenuen ere—: Xabierren itzulerak, luzaro isilik egon ondoren; egun horretako interpretazio mailak —Letek, ohi bezala, eszenatokira atera aurretik, “hil ala bizi” esan zigun adorea emateko—; eskainitako pieza argitaragabeek; eta baita diskoari laguntzen dion liburuxkan aipatu nituen beste zenbait gorabeherak ere. Uste dut hori dela filosofia, hori dela modua Xabierren ondarea gizarteratzeko eta etorriko diren belaunaldiei transmititzeko. Neu, lanen berri jakiten dudan neurrian edota lan argitaragabeen jabe —izaten— naizen neurrian, prest nago atsegina ematen duen lan horri jarraitzeko, uste eta asmo beroz.

Azken urte hauetan, lehentxeago aipatu dudan bilketa lana dela eta, abagunea izan dut Xabier gertutik ezagutu zuten eta harekin askotariko harremanak izan zituzten lagunekin solasaldi luzeak izateko. Pertsona horietako askorekin behin eta berriz hitz egin dut: erritu osasuntsua izan da, aldi bakoitzean oroitzapen eta ondorio arras ezberdinetara eramán gaituena. Gainera, pertsona gutxik izan zuen harreman aldi luzerik Xabierrekin. Gaixotasuna gogor oldartzen zitzaion denboraldi luzeetan, bakartu egiten zen, eta bide luze horretan aldaketa erraldoiak ere bizi izan zituen. Hori dela eta, era askotako pertsonak osatu zuten Xabierren ingurua, eta, gaur egun, pertsona ordezkaezin horien guztien artean puzzle aberats bat osatzen da. Puzzle horretan, arrago horretan, bat egiten dute inoiz adierazi, idatzi edo argitaratu ez diren bizipen ugariak.

Antton Valverde, Frantxi López Landatxe, Joxi Lizeaga, Arantxa Lete, Juan Kruz Igerabide, Paco Ibáñez, Jesus Mari Olano (†), Bartolo Orkaizagirre (†), Iñaki Aldekoa, Eugenio Ibarzabal, Bernardo Atxaga, Joxeanjel Arbelaiz, Sebastián García Trujillo, José Antonio Echenique, Jose Angel Irigarai, Inazio Mujika Iraola, Patri Urkizu, Eugenio Arozena, Santi Sánchez Moriano, Pier Paul Berzaitz, Anjel Lertxundi, Mari Karmen Odriozola, Peio Ospital, Felix Zubia, Andrea Revuelta, Joxean Ezeiza, Karmelo Ezeiza, Iñaki Aranzadi (†), Txema Garcés, Jon Sarasua, Iban Arantzabal, Joserra Garzia, Aurelia Arkotxa, Xabier Erdozia, Roberto Yaben, Juan Carlos Garmendia, Jose Mari Argoitia (†), Fernando Larruquert (†), Ramon Etxezarreta, Arkaitz Valle, Karlos Linazasoro, Angel Telleria, eta nahi gabe ere ahanzten dudán beste hainbat. Horiei guztiei esker lortu dut Xabier Leteren izaera osatzea, batez ere alde edo ikuspegi gizatiar eta sozialetik.

HESIA URRATURIK lana sortu eta idazteak bazuen ageriko beste zailtasun bat ere. Prozesu guzti honetan sarri oroitu ditut Donostiako musika kontserbatorioko irakasle batzuk: besteak beste, Mikel Bikondoa, José Luis Marco, Francisco Escudero —aita eta semea— eta Jesus Maria Alberdi (†); baina, batez ere, Juan Jose Iruretagoiena, nire lehen musika irakaslea. Zer pentsatuko ote zuten edo ote dute nire lehen lan sinfoniko korala 52 urterekin idatzi dudala jakinda? Begi bistakoa izango da, emaitzari begiraturik, alor horretan hasiberria naizela. Neure burua zuritzeko, badaezpada eta norbaitek nire asmoari handiustekoa iritziko balio ere, barkamena eskatzen dut. Zernahi gisaz, espero dut ezagutzen nautenek eta maite nautenek eskuzabaltasun eta bihozberatasunez hartzea. Egia da, konposizio klasikoko ikasketak oso goiz utzita, beste eskola bati atxiki natzaiola bizitza osoan zehar, zabalagoa, askeagoa, onuragarriagoa eta gogobetegarriagoa izan den ildo batean arituz. Orain, iruditzen zait bizitza osoan une honetarako prestatzen aritu naizela, eta nire bizipen eta ikastaldi guztiak 2020ko udaberri bereziko itxialdian loratu zirela.



Leteren unibertso poetiko eta musika sinfoniaren arlora gerturatzeko asmoa ez da berria: José Antonio Echeniquek iradoki zuen bere garaian, Xabierren lagun eta Donostiako Musika Hamabostaldiaren zuzendariak, Benito Lertxundiren *Auhen Sinfonikoa* (1998) diskoaren arrakasta ikusirik. Baina, asmo handiko proiektuetarako Xabierrek zuen izaera apalak eraginda, eta, batez ere, bere gaixotasun larriak jartzen zizkion mugak zirela eta, baztertu egin zuten egitasmoa.

Nire asmoa jendarteratu egin zen neurri batean, eta lehen planteamendu bat egiteko aukera izan nuen: Andra Mari Abesbatzaren 50. urteurrenerako planifikatzen ari ziren ospakizunetan izan zen. Ion Baguesek deitu zidan Eresbiletik, eta esan zidan *Musikasteren* 40. edizioa egokia izan zitekeela nire lana lehen aldiz emateko. Ekimena ezin izan zen hezurmamitu, baina bihotzez eskertzen diot niganako uste osoa. Gaurtik begiratuta, nire ondorioa da oraindik ez nengoela prest konposizioa gorpuzteko. Orduan, dolua artean nabaria zen, eta, hutsuneari zerion minez, Xabierren eta Lurdesen etxea errentan hartzea ere pentsatu nuen, lana sortu eta idatzi bitartean. Oraindik ukitu gabe zegoen Xabierren liburutegian lan egiteak erakartzen ninduen, haren gauzaz inguratuta, pianoa ondoan, eta hainbeste esanahi emozional eta poetiko dituen loredia kanpoan... Familiarekin konforme jarri arren, azkenean ez nintzen hara joan. Hasia nintzen izpiritua baretzen saiatzen. Lanak izan nituen, baina.

Bazen, halere, buruhauste handiak eman beharko ez lizkidakeen gai bat, erabakita bainuen Xabierri gustatuko litzaiokeen zerbait idaztea. Estiloaz eta diskurtso musikalaz ari naiz. Hark zer zuen gustuko jakinik, ezin nintekeen sartu esperimentu eta abentura handietan.

Gaur egun, musikak garai batean baino toki gutxiago du nire bizitzan. Eta ez gustatzen ez zaidalako —izugarri gustatzen zait—, etxean soinu eta zaratak entzutea gero eta gutxiago eramaten dudalako baizik. Esan dezagun isiltasunean gero eta hobekiago sentitzen naizela.

Gustatu, liturgiako musikak asko gustatzen zaizkit, monastegietakoak, adibidez. Eta polifonia erlijiosoa. Eta Bach. Eta gainera, musika klasikoa, Monteverditik hasi eta Stravinski arte. Hortik aurrera, musika garaikidearekin arazoak ditut; atalka maite dut, baina ez gehiago.

Baina musika klasikoa esatean, bereizi eta zehaztu beharko litzateke. Adibidez, hemeretzigarren mendeko zenbait musika eta zenbait musikari ez ditut aguantatzen. Parafernalia eszenografikoak deitoragarriak iruditzen zaizkit: Wagner eta bere mito germaniarrak. Gainera, Wagner protonazi bat izan zen; azkenerako, Nietzschek berak ere arbuiatu egin zuen. Nietzschek greziar kultura klasikoa maite zuen, eta ez arrazaren mito teluriko ilunak. *Wotan, Sigfrido, Walkiriak... Vade retro!*

Musika italiarra asko maite dut, Palestrina eta Monteverdetik hasi, Corelli, Vivaldi eta barrokotik pasa, eta erromantizismoraino.

Baina agian gehien emozionatzen nauena musika eta kanta herrikoiak dira: euskaldunak, korsikarrak, siziliarrak, armeniarak. Barojak idatzi zuen bezala: “Zer nolako malenkolia dakarten neure arimara!”.

Beste batean, hauxe esan zuen:

Ez nuke beste osagarri estetiko bat, erabat desberdina, inolaz ere ahaztu nahi: Elizaren latindar liturgiaren musikak eta, haiekin batera, elizkizunetako euskal abestien eragina, alegia. Gure kultur pobretasun izugarri haren erdian, elizkizun nagusietan —Eguberria, Aste Santua, Bazko eta Pentekoste— Palestrinaren moteteak entzun ahal izatea, Perosiren meza pontifikala, eta Bachen koralaren bat organoan, hori kontsolamendua eta luxuria hutsa zen. Baziren, gero, herrietan, operarako zaletasuna zuten pertsona bakan batzuk ere, edo Mozarten diskoren bat entzuteko uzten zizutenak.

Elizkizunak, bai; nik oso barruan sartuak daramatzat katolikotasun barrokoaren atal hain bereziak. Aita kaputxinoen ohiko sermoiak euskaraz entzutea —eta Arantzazuko frantziskotarrenak misioaldietan— oso aberasgarria zen, adibidez. Niri behintzat beti iruditu zait nik belarrian jasoak ditudan euskararen hots eta erritmoak haiengandik jasoak ditudala.

(Xabier Lete. Abestitzak eta poema kantatuak. 2006)

Guzti horretatik, oso argi nabaritzen zaio zer nolako zaletasuna zuen halako zirrara eragiten zion musikarako:


Zergatik samintzen nanzue hainbeste
musika oldarkor arnastuek
zuen exaltazio zorabiatuekin
harmoniak bere argudio harroigarriak
oinazea eta penaren gainetik dituenengan eraikitzen,
madarikazio bat ote dagoen azkenean
sormenaren laberinto zehaztu ezinetan
hor, zigiluz hertsitako adileku besteratueta,
esaidazu zergatik, Johann Sebastian,
zure esakera bakoitzak bortizki naraman
otoitzaren erpinean legokeen heriotzera,
amets bat bailitzan
edo agian loaren azken nagia,
zer genien haien zat erorkirik ez denean gelditzen
hortxe musika batzuen lantuma baizik,
esaidazu non danden galdutakoak
zer sonata edo zer adagiotan trabatnak,
gu eta haien artean
misterio izugarrien itzala baizik ez denean gelditzen.

(Egunsentiaren esku izoztuak poema liburutik)



Behin betiko gaizkitzea gertatu baino lehentxeago, elkarrekin eman genituen azken egunetan, *Apotheosis sive consecratio SS. Ignatii et Francisci Xaverii* drama alegorikoa entzuten hasiak ginen. Musika hori Girolamo Kapsbergerrek idatzi zuen 1662. urtean, Loiolako Ignazioaren eta Frantzisko Xabierkoaren kanonizatzea ospatzeko. Partekatzen genituen uneek eta horrelako musika entzuteak piztu egiten ziguten betidanik Italiara elkarrekin bidaiatzeko geneukan gogo. Nik bidaia ugari egiten nituen hara, Dulce Pontes eta Balen Lopez de Munainekin musika jotzera joanda, eta itzuleran Xabierren egarria handitzen nuen handik ekarritako informazio eta opariekin. Ravenna, Apulia, Toscana, Umbria, Abruzzo... harrigarria zen zenbaterainoko ezagutza zuen Xabierrek hainbeste liluratzen zuen lur horri buruz.

Xabierrek bizitzarekin, pertsonekin eta ideiekin hunkitzeko zuen modu berezi eta biziak burura dakarkit orain Joxeanjel Arbelaitezkin Miarritzera joan zenekoa. Lluís Llachek *Nu* diskoa aurkezten zuen *Gare du Midi* salan. Llachek pianoari sorrarazten zion musikak malkoak isurarazten omen zizkion gaixo eta atsekabetuta zegoen Xabierri. Miresmen handia zion Letek Llachi. Gogora dezagun katalanaren hiru abesti adierazgarri itzuli zituela gure hizkuntzara, beste zenbait hizkuntzatako testuak euskarara moldatzeko zuen ohiko maisutasun eta trebetasunez: “L'estaca” (Agure zaharraren erranak), “Vaixell de Grecia” (Greziako itsasontzia) eta “Corrandes d'exili” (*Erbesteko kalejira tristeak*)—azken hau, Joan Oliveren testuan oinarritua—. Vergesko artistarekin dudan sintonia tarteko, oratorioaren izenburuko *HESIA* gaztelerara itzultzean, *estacada* jarri dut, *valla* edo *cerco* ohikoagoen ordeztu —Jabier Imazen iradokizuna izan da, zeinari zinez eskertu nahi baitizkiot bere laguntza, ekarpena eta, batez ere, adiskidetasuna—.



Obrari oratorio musikaren egitura emateak izugarri erakarri ninduen hasiera-hasieratik. Banekien, Xabierren lanetako testuetan oinarritutako musika idazteko, liturgikoa ez zen oratoriora jo behar nuela nahitaez. Haren formatua iruditzen zitzaidan egokiena izpiritualtasuna islatzeko, eta baita gogoan neukan giroa sortzeko ere: ibilbide musikala eta poetiko bat birsortu nahi nuen, gonbidatuko gintuena Leteren pentsamenduaren eta imaginario filosofiko-estetikoaren garai ezberdinetan murgiltzera, eta baita haren ezinegon eta zalantza existentzialetan murgiltzera ere: pasioa, fedea, etsipena, aberria, nostalgia, maitasuna, elkarbizitza, adiskidetzeta, salbazioa, itxaropena... Ziurrenik, egongo da obraren ataletan ordenamendu kronologikoa sumatuko duenik, bizitzako aldien antzera; egongo da, halaber, *meza* baten zatien hurrenkeraren antza hartuko dionik... Ez bata, ez bestea; eta, aldi berean, biak izan litezke subkontzientetik eragin didatenak. Edonola ere, nire asmoa ez da inoiz izan haren ibilbidera eta aldietara modu integralean hurbiltzea. Hori lortzea ezinezkoa da horrelako obra batean, nahi beste luzatu arren. Obrak 13 atal izateak ere kasualitate baten ondorioa irudi lezake; izan liteke...

Xabier Leteren testuei musika jartzeko asmoa asko baldintzatu zidan Bilbon izan genuen emanaldiko bizipen batek. Arriaga Antzokian izan zen, 2010eko urtarrilaren 12an: *Egunsentiaren esku izoztuaken* azken errezitaldietako batean izan zen. Agertokira atera aurretik, telebistakanal batek elkarrizketa egin zigun. Galdera bana egin ziguten, modu oso orokorrean, musikaren eta poesiaren arteko harremanari buruz. Xabierrek, ohi bezala, azkar eta zehatz erantzun zion bere parteari. Hark bukatu zuenean, niri kosta egin zitzaidan erreakzionatzea, eta orduan berak erantzun zuen nire ordeztu: “Hitzak, ondo erabilia denean, berez dauka musikaltasuna. Eta poesiak zer esanik ez. Poesian hizkuntzaren erritmoak eta hots onak agertu behar dira eta horrek berarekin darama musika. Ez dago gauza tristeagorik norbere hizkuntzaren musikaren aurka borrokatzea baino”. Pentsatuko duzue zer nolako bisajea geratu zitzaidan. Eta egun horretan musika guztia sobera zegoelako sentipena...

Horrexegatik erabaki nuen ez niola neure buruari eskatu beharrekoa baino gutxiago eskatuko. Senez lana egin, testua ardatz nuela, eta biek, senak eta testuak, iradokitzen zuten giro eta erritmoa sortu: hori izan da nire jokatzeko arauetako bat *HESIA URRATURIK* idaztean.

Izenburu hori aukeratu nuelarik, modu inplizituan adierazi nahi nuen Xabier Letek bere bizitzaren amaieran lortu zuela delako hesi, itxitura edo hesola hura eraistea, nolabait bizitza osoan oinazetu zuena bere zalantza existentzial, etiko eta estetikoekin. Inoiz iruditu izan zait “Xalbadorren heriotzean” abestiaren hitzak, Xalbador bertsolaria hil zen egun berberean nahigabeturik idatziak, badirela bere buruari eskainiak ere. Aspalditxotik hori sentiarazten didate, entzuten eta irakurtzen ditudan aldi bakoitzean.

Idea hori —Xabierrek hesia eraitsi zuelakoa, alegia— ez dakart inon entzun edo irakurri dudalako, baizik eta hark berak adierazi zidalako eta ideia horien inguruan aholku eman zidalako. Oratorio honen ibilbidea ixteko, inspiratu egiten nau maite zituenekin eta bizitzarekin adiskidetu zen pertsona narearen irudiak. Bereziki garbi datorkit gogora Elgetara joan behar genuen eguna. 2009ko azaroaren 29a zen, eta *Egunsentiaren esku izoztuak* poesia liburuaeren errezitaldia genuen Espaloia Kafe Antzoki eroso eta goxoan. Egun petrala zen, zerua gris eta lanbro itxia, eta nik oso poliki neraman autoa. Asko gustatzen zitzaidan Xabierrekin astiro joatea; iruditzen zitzaidan denbora gelditu egiten zela eta luzaroago egon nintekeela berarekin. Gai transzendentalez ari ginen hizketan, eta Norvegiako antzinako musika entzunez gindoazen, egun horretarako proposatu nuen *Nordisk Sang* izenburuko diskotik. Une batean, automobila gelditzeko eskatu zidan; hunkitua zeukan diskoa berrabiarazi, eta bizitzarako baliagarri izan zitezkeen zenbait gomendio antzeko eman zizkidan. Berak hainbat loturatatik askatzeko hartu zituen erabaki eta ondorioez mintzatu zitzaidan, eta gomendatu zidan ez itxaroteko bizitzaren azken aroa iritsi arte, orduan jada berandu edo alferrik izan ohi delako. Errezitaldia eta ondorengo afaria, pertsona abegitsuekin ospatua, guztiz atseginak izan ziren. Orain, noiz edo noiz behatzen diot disko haren azalari, eta Norvegiako paisaia lanbrotsuak, Elgetara joan ginenekoaren antzekoak, egun hura oroitarazten dit, inoiz amaitzea nahi ez genukeen egun eder horietako bat.

ez gara lur itsua izanen
biziaren zuzi irazekia baizik
eta etxe ezagun aspaldikoan mugilduko gara
hau sorberri, landetako ihintz.

Egun batez argiz jantziko gara
eta hartuko dugu
izpirituari dagokion gailurbide adeitsua.



Obrara ekar ditzakedan nire bizipen eta oroitzapenez gain, aitortzen dut, azken urte hauetan, hainbat pertsonarengana jo dudala Xabierrez galdezka, nik neuk ditudan ideia eta pentsamenduak haienekin egiaztatzeko eta osatzeko. Hemen azpimarratu nahi dudan pertsona horietako bat Sebastian Gartzia Trujillo da. Izugarri eskertzen dizkiot nireganako gertutasuna eta irakaspenak. Biziki garrantzitsua iruditzen zait Xabier Leteren inguruan duen ikuspegi espiritual eta humanoa. Hori oso ondo adierazita dago *Hamaika euskal literato eta Jainkoa* argitalpenean (2016 EHU). Bereziki interesgarriak iruditzen zaizkit Xabier Leteren otoitzarekin eta sinesmenarekin lotzen duten gogoetak; teologiari dagokionez, guztiz gaurkoak diren galdera eta ikuspegiak. Irakurri beharrekoa.

Ildo beretik doaz Joxe Arregik egin zituen elkarrizketa eta ezinbesteko testuak (*Hemen* 4, 2004ko urria-abendua).

Gu bizi garen munduan, mundu hori erreferentzia hurbilenetatik hartuta, Jainkoaz mintzatzea ez dago gizartearen lehentasunen artean; are gutxiago sinesmenaz mintzatzea edo sinesmenarekiko dialektiketan murgiltzea. Idazle, intelektual, artista, profesional kualifikatu eta beste jende moderno askorentzat, Jainkoaz mintzatze soilak esoterismo tankerako zerbait litzateke; maniatiko arraro batzuek praktikatzeko duten berezitasun kontzeptuala, alegia.

Zenbaiten aurrean, lankide eta solaskide izan ditudan adiskide eta lagun batzuen aurrean adibidez, gai hori aipatzen duzunean, tolerantzia errukitsu batekin bezala begiratzen zaituzte, “honek ere badik bere bitxikeria” pentsatuz.

Horregatik, neure buruari sarri galdetzen diot egia ote den Carl Gustav Jung mediku psikoanalistak Zurichetik hurbil zegoen Küsnacht herriko bere etxearen sarreran idatzi zuena: *Vocatus atque non vocatus Deus aderit* (deitua izan ala ez, Jainkoa beti dago present).

Beti al dago hor Jainkoa, gizakumea bere umezurtz izatetik eta bere biluztasunetik babesteko? Galdera horrek zalantza eta iluntasun asko darama bere baitan, ezagutzari dagozkionak, baina bai eta izate emozionalari dagozkiokeenak ere, hutsetik sentitzen eta nabaritzen garenean baikaude hain zuzen Jainkoaren babesaren beharrean.

Nik pentsatu izan dut Jainkoarekiko galdea amaierarik ez duen otoitzean gauzatzen dela; otoitza ez delako eskea bakarrik, eskatzen diogun harekiko harreman posiblearen bermea edo bermagia baizik. Nik uste dut Jainkoa gizatasunetik bakarrik uler daitekeela, eta bereziki gizakumeak dituen eskasia, ahulezia, eta gaixotasunetatik abiatuz. Otoitz egiten duena ez ote da sinesteduna? Han, bakoitza bere gauaren ilunpean dagoenean, eta leihoaren beste aldean —edo bazterreko gelan— legokeenari galdea eta arrena zuzentzen dizkionean.

Jainkoak gizakumea bere idurira egin bazuen, sufrimendutik hurbil egon beharko du. Existenzialki da Jainkoa posible, eta ez hieratismo autoritarioen paradigma bezala. Alde horretatik, uste dut Jesusen “mendiko irakaspena” irakurri beharko genukeela behin eta berriz, han baitaude adieraziak Jainkoarengana hurbil gaitzaketen gizatasunaren exigentziak: errukia, barkamena, eskuzabaltasuna, bihotz baretasuna, sotiltasuna, zehaztasuna. Ez bortizkeriarik, ez itxurakeriarik, ez legalismorik, ez erredundantziarik: “Otoitz egitean, ez ari esan eta esan, jentilek ohi duten bezala, uste baitute beren hitz jarioari esker entzungo diela Jainkoak. Ez izan horien antzeko, bai baitaki zuen Aitak zeren beharra duzuen, zuek eskatu baino lehen” (Mateoren Ebanjeliotik).

Baina munduan bizi garenoi kosta egiten zaigu Jainkoaren eskuetan jartzea. Munduaren zaratak eta geure “nitasunaren” kontzientzia ikaratuak garamatzate garaipen positiboen lehia zorabiatu horretara. Jakin egin nahi dugu, garaitu egin nahiko genuke, errekonozimendua eta garantiak behar ditugu.

Horregatik, nik uste dut on litzaigukeela tarteka geure burua eta geure barnea hustu, isiltasunerantz bildu, eta monjeek gaueko konpletak errezatzean abesten duten gomendiozko gorazarrea errepikatzea: *In manus tuas, Domine, commendo spiritum meum* (zure eskuetan, Jauna, uzten dut nire izpiritua).

Bai, Jainkoa, beti, zantzutzea izanen da, eta galdetzea, eta otoiztea. Haratago hel al gintezke misterio horren gure ezagutzan? Bakea, Jauna, emaguzu bakea!

Nire kokagune apaletik, umiltasun eta errespetu osoz, Xabierren ideia eta sinesmen horiek islatu nahi izan ditut testuak hautatu eta horiei musika jartzerakoan, bereziki hiru ataletan: “VII. Gorde nazazu, Jauna”, “XI. Aita Gurea” eta “XII. Vulnerant omnes”.

Parentesia ireki nahi dut hemen, ikertzaile batzuk banan-banan aipatzeko. Pertsona horiek, beren ikerketa lanekin, Xabier Leteren lan-ondarea bildu, ezagutzera eman eta nahitaezko irakaspen izan dadin, ikuspuntu intelektualetik zein unibertsitateko esparrutik, bide garrantzitsua bezain beharrezkoa urratzen ari dira.

Alex Gurrutxaga zarauztarrak sei urteko lanaren ondoren aurkeztu zuen doktore tesia EHUn —*Xabier Leteren poetika: aldaeren azterketa eta bilakabidearen irakurketa bat*—, eta segidan *Xabier Leteren, aberriaren poeta kantaria* liburua eman du argitara. Uste dut lan horrek etorkizuneko ekimenen abiapuntu izan behar duela. Lerro hauek idazten ari naizen bitartean eman dute albisteak: Eusko ikaskuntza-Laboral Kutxa Saria eman dietela Alex Gurrutxagari, hain zuzen, eta Joana Otxoa de Alaizari, *Txori kantazale: Xabier Leteren berrezagutzen* proiektuagatik. Lan horrek poeta eta kantariaren unibertsoa jendeari ezagutaraztea du helburu. Horretarako, 2021-2022 aldirian errezitaldi bat egingo dute, eta ondoren disko-liburu gisa argitaratuko.

Ainhoa Urien abadiñarrak Xabier Leteri eskaini dio bere lehen liburua: *Poesia, zaurien ukendu. Xabier Leteren arrastoan*. Xabier Leteren ikuspegi gizatiarragoa helburu duen lana da, eta ahobatezko onarpena izan du ibilbidean harekin partaide izan garenon artean.

Elixabete Perez Gaztelu eta Haizea Saez de Egilaz Perezek Xabier Leteren prosaren bilduma aparta osatu dute —artikuluak, saiakerak, eta abar—: Oiartzungo udalaren ekimenari esker argitaratu da *Zerbitzuko lanean. Leteren kazetari, Leteren prosagile* izenburuarekin, eta Anjel Lertxundiren hitzaurre luze bezain mamitsua dauka —“Prosa ere bikaina zuen” —.

Beste lan interesgarri batzuk ere badatoz bidean, hala nola Jon Martin oiartzuarraren *Xabier Leteren kantagintzaren azterketa: ahozkotetasuna eta errekorrentzia tematikoak* doktore tesia eta Eugenio Ibarzabal kazetari eta idazlearean *Xabier Leteren, de un tiempo, de un país* liburua.

*HESIA URRATURIK*en sortze prozesura itzulita, bada adierazi nahi dudan zerbait obraren garapen eta idazketa musikolari dagokienez. Hasieratik izan nuen argi ez nuela Leteren abestien berrarmonizatze soil bat edo instrumentazio sinfonikoago bat egin nahi. Hori Xabierrek berak baztertu zuen bere garaian. Zenbait kasutan egin dudana, normala den bezala, melodiarik ez zuten testuentzat melodiak sortzea izan da. Beste zenbaitetan, berriz, “dekonstrukzio musikala” deitu daitekeen teknika erabili dut, dagoeneko bazeuden testu eta melodiak zatikatuz, eraldatuz eta testu eta melodiak gurutzatuz. Entzulearen belarriei utziko diet asmatzen zein melodia dauden “Kyrie”aren azpian edo “Gorde nazazu, Jauna”ren erdiko *tuttian*.

Orkestraren konposizioari dagokionez, konfigurazio ertaina hobetsi nuen, orkestra handiaren egiturara jo gabe. Obra honetan testuek duten garrantzia aintzat hartuta, beharrezkoa zen abesbatzari eta bakarlariari begiratzea, une oro behar den adinako argitasunez entzun daitezen. Uste dut orkestra mota horrek, ganbera musikan ikusi ohi denaren ildokoak, ongi bat egiten duela Xabierren gustuarekin —Mozart, Schubert eta abar—. José Antonio Echeniquek biziki animatu ninduen musika tresnen paletan pianoa eta akordeoia ere sar nitzan. Biak ala biak izan ziren garrantzitsuak Leteren ibilbide musikalean —Antton Valverde, Karlos Giménez, Jabier Muguruza eta neu tarteko—, eta obran egon behar zuten. Hasieran zalantza zenbait izan nituen arren, laster eman nien merezi zuten lekua. Inondik ere, hainbeste merezi dute soinu jotzaileek.

Beste puntu bat ere zehaztu nahi nuke. Uste dut Xabierren musika eta melodiak sinfoniaren esparrura gerturatu daitezkeela, haien kalitatea eta arnasa eztaba daezinak direlako eta hartarako egokiak direlako. Xabierren gaitasun musikolari dagokionez, ez nator bat, inolaz ere, bere buruari zion estimu eskasarekin. Banan-banan aztertu genitzake hark sortutako melodiak, eta seguru nago batek baino gehiagok nahiko lituzkeela berarentzat. Sentitzen dut horretan harekin ados ez egotea, ezta hainbatetan jendaurrean adierazi zituen sentimenduekin ere. Saiatu nintzen aurrez aurre haren iritzia aldarazten; arrakastarik gabe, ordea.



Abestiak ez dira hitzak bakarrik, musika ere hor dago. Eta zerbait esan behar da horri buruz. Hasieran, eta urte askoan zehar, abestien musikak neronek konposatzen nituen; berdin egiten zuen Lurdesek ere, eta berdin egiten zuten nik ezagutzen nituen kantari ia denek. Egokia eta zuzena iruditzen zitzaigun hori egitea, esaten zutenez horrela abesti oso “geureak” eta oso artifiziorik gabeak idazten genituelako. Beraz, hartzen zuen bakoitzak bere gitarra eta, doi-doian menpera zitzakeen akorde mugatu batzuez baliatuz, kantuak asmatzen zituen. Batzuetan bazuten indarra, bai.

Obratzeko modu horrekin, ordea, ezin zitekeen miraririk egin, hori baikorrenak ere ulertzen du. Hala ere, abestiak konposatzeko modu hori oso mitifikatua izan zen, barnean zeramalako bat-batekotasun “erromantiko” baten ahalegina. Eskolarik gabe, solfeorik gabe, harmonia eta konposizioaren gutxieneko jakiterik gabe, uste ohi genuen, eta horrela esaten zitzaigun, sor genitzakeela bat-batekotasun handiko melodiak eta kantuak.

Une bat iritsi zen iritzi horrekin erabat desados nengoena, eta urteetan zehar, gaur arte, desados jarraitu dut. Izan ere, esan behar da, lehenik, beste edozein langintza eta ofiziotan eskatzen diren ezagutza, trebezia eta lanabesik gabe, oso zaila egiten dela sinistea katurako ofizio horretan bat eroso ibil daitekeenik. Musikaren ezagutzarik gabe abesti onak ondu izan direla badakigu, baina horrek esan nahi duena hauxe da soilki: zenbait jendek baduela barruan musikarako sena, melodiekiko arnasa sortzaile bat gero belarrietan ongi itsatsia gera daitekeena. Baina, jakina, edonork pentsa dezakeen bezala, ahalmen hori, bere hutsean, oso mugatua da, eta are mugatuagoa musika tresnarik menperatzen ez baduzu, musika tresnek ematen baitute, neurri haundi batean, harmoniarako bidea.

(Xabier Lete. Abestitzak eta poema kantatuak. 2006)

Lerro hauetaz baliatu nahiko nuke Xabier Leteri bere sortzaile ibilbidean lagundu zioten hiru pertsona eskertzeko eta haien gaitasun artistikoa ezagutzera emateko: Antton Valverde, Karlos Giménez eta Pier Paul Berzaitz dira. Haien talentu aparta jarri zuten Xabierren zerbitzura, eta, ezkutari leial gisa, hainbat akonpainamendu musikal, moldaketa eta melodia eder eskaini zizkieten; hark, berriz, modu ireki eta eskuzabalean estimatu eta eskertu zizkien. Lehen biek harreman zuzenean lan egiten zuten Xabierrekin; Pier Paulek, aldiz, hainbat poema musikatu zituen, Xabierrek berak hala eskatuta —nahiz, zoritxarrez, ezin izan zuen haiekin gozatu—. Xabierrek beti aitortu izan zuen Pier Paul Berzaitz melodia sortzaile aski fina dela. Hargatik, melodia horietako batzuk sartu nahi izan ditut obran, Xabier Leteren abesti bildumari egiten dioten ekarpen garrantzitsuen lekuko gisa. Bestalde, uste dut Karlosen “Jardin bat zuretzat” bizitzari eta maitasunari egindako ereserki bihurtu dela gu guztiontzat, eta, beraz, merezi zuela obran sartzea, jatorrizko bertsioari gertutik eta zintzoki jarraituz.

Oratorioa idaztean, lotsarik gabe murgildu naiz “Oiartzun”en. Hain zuzen, izen hori dute obraren III. eta IV. zatiek, eta haietan entzuten diren melodien iturburua ere bada. Leteren jaioterria, edo, Felix Ibargutxik *El Diario Vasco*ko artikulu egoki hartan esan zuen bezala, haren egoitzetako bat, beti izan zen harentzat gorputzaren, hizkuntzaren eta kulturaren erreferente garrantzitsu bat. Bidenabar, aldarrikatu nahi dut nire bigarren abizena, Maritxalar, Oiartzun-Lezo-Pasaia-Oarsoaldeako ardatzean kokatua dagoela historikoki. Amaren aldeko aitona, Juan Bautista Maritxalar, Oiartzunen jaio zen 1879. urtean. Gogoan dut Hernaniko Urumea ikastolan ibili nintzeneko pasadizo bat. Hango ikasketak bukatzearekin batera, euskararen mailaren diploma jasotzeko, epaimahai ospetsu baten oniritzia behar genuen. Ospetsua zen, halaber, musikaren, folklorearen eta kulturaren alorretan irakasle genituenen zerrenda: Benito Lertxundi musikan, Lurdes Iriondo gorputz adierazpenean, Joxan Lizarribar euskal dantzetan, Joxe Mari Gabiria bertsolaritzan, etab. Bada, aipaturiko epaimahaikoak Manuel Lekuona, Juan Mari Lekuona eta Jexux Gaztañaga ziren. Ahozko proba amaitu nuenean, Manuel

Lekuona jaunak, Juan Mariren osaba eta Xabier Leteren eredu eta iturri garrantzitsua izan zenak, hitza hartu eta esan zidan: “Hi, mutiko, hire hizkera ez duk Hernanikoa, ala?”. Galderak pozez bete ninduen, eta nire ama Gaintxurizketako Etxeberri baserrikoa zela erantzun nion, azterketa erdi gaindituta nuelakoan...

Bi zati hauek —“Oiartzun” III eta IV— lotzen dituen unean entzuten den musika, argi antzematen den bezala, ez da nik sortua; eta sinadura entzutetsu horien itzala sumatu daiteke lanaren beste zenbait zatitan ere. Xabierren zaletasun musikal finari eginiko keinu txikiak dira. Doinu horietako zenbait Xabierrek berak proposatu zizkidan nire bakarlari bildumarako. Beste zenbait kasutan, berriz, bere hileta elizkizunerako aukeratu zuen *playlist* berezitik hartutako piezak dira.

IX. zatiak, “Eskaintza” izenekoak, Pier Paul Berzaitzek sortutako melodia du, Xabierrek joan zirenei eskaini zien poema hunkigarriarentzat ondua. Hemen jarri nahi dut ezagutzeko zortea izan ditudanen zerrenda pertsonala; lankide izan ditut, askotan Leteren inguruan, eta asko irakatsi didate. Nire esker ona eta oroimen xamurra adierazi nahi dizkiet: Imanol Larzabal, Lurdes Iriondo, Fernando Larruquert, Joxan Lizarribar, Joxan Artze, Mikel Laboa, Imanol Urbietak, Francisco Escudero, Mikel Bikondoa, Jesus Maria Alberdi, Hiazinto Fernandorena, Manuel Lekuona, Julen Lekuona, Juan Jose Iruretagoiena, Manuel Yaben, J. M. Azkue, Bogdan Precz, Frank Marocco, Bartolo Orkaizagirre, Fiachra Mac Gabhann, Fernando Ederra eta Jesus Mari Olano.



XI. zatiari, “Aita Gurea”ri dagokionez, ohar berezi bat egin nahi dut. Izan ere, ez da egunero aitagure bat idazten, eta are gutxiago Xabierrek *Egunsentiaren esku izoztuaken* sartu zuen hura bezain bihotzurragarria denik. Zati hori izan da, zalantzarik gabe, sortze prozesuan begirune handiena eragin didanetako bat. Gainerako atalek bezala, honek ere azpтитulu bat dauka, zati bakoitza egokiago testuinguratzeko eta testuaren sorburua nolabait seinalatzeko. Bada, kasu honetan, azpтитulua “Herbestea” da, eta testuan bertan agertzen da. 2009ko otsailaren 20an, Izpurara —Donibane Garazi ondoko herri txikira— joan ginen, *Egunsentiaren esku izoztuak*ri zegokion aurkezpen-errezitaldia ematera. Egun horretan bertan, Irulegi Irratiko Mari Agnes Gorostiagek elkarrizketa egin zion. Oso pozik eta gustura igaro zuen eguna Xabierrek, eta ez da harritzekoa, beraz, hari xamurtasun eta epeltasun bereziz mintzatu izana. Grabatuta eta gordeta geratu ziren beste gauza askoren artean, Xabierrek adierazi zion asmoa zuela *Egunsentiaren esku izoztuaken* eduki desberdina izango zuen poema liburu bat idazteko, izena *Herbestea* —hatxerekin, bai— izango zuena. Ez zuen amets hura gauzatzeko ahalmenik izan.

Ez zen izan Xabierrek elkarrizketa hartan adierazitako amets bakarra. Mari Agnesen galderari erantzunez, Euskal Herri ideal bat irudikatu zuen, Ipar Euskal Herriko paisaiaren antzekoa izango litzatekeena; eta noizbait, aldi batez, han bizitzeko nahia ere agertu zion. Izan ere, Iparraldeko hiru probintziak oso maite zituen. Zuberoan igaro zuten Lurdes eta Xabierrek euren eztei-bidaia, eta hangoak izaten ziren jotzeko eskatzen zidan melodiak, Lurdesen eta bien zaletasunen oroigarri gisa: “Basoilarrak”, “Xoritua nurat hua”, “Txori kantazale eijerra”, eta abar.

Beste ildo batetik, aberriaren gaia VIII. zatian, “Etsipenaren mugetan” deitzen denean agertzen da. Ez dakit, ordea, ematen ote duen Xabierrek gai horri beti eman izan zion garrantziaren neurria. Hona ekarriko ditut hark egindako zenbait gogoeta, “Aberriaren amets eder galdua” (*Hernani*, 1994) artikuluan adierazi zituenak, eta beti inspiratu nautenak:

Aberria izan daiteke fisikoa, lurralde bat; mentala, ideia eta sugestio intelektualen mundua; izpirituala, artistarentzat, sinestunarentzat, ederzalearentzat; planetarioa, kosmikoa, eta abar. Eta gainera, aberri partikularrak leudeke. Sufrimendua, adibidez, ez al da aberri bat? Liburuak ez al dira beste aberria? Edo humanismo unibertsala, ulermenaren eta pietatearen bitartez gizaldia “aberkideen” esparru bakar izatera eraman lezakeena... Aberria atxikimendu bat da, zenbat eta izpiritualagoa orduan eta sakonagoa.

Nik askotan pentsatu izan dut aberria, nonbait baldin badago, ez dagoela ez ideologietan, ez politikoen erranetan, aberria egiaz une bakan eta harrigarrietan nabaritu izan dut: udako gau epel batean belar usain bat sentitzean; kanta xahar batzuk entzutean; baserritar adinduekin mintzatzean... edo, agian, urruneko hiri argitsu miresgarriaren irudia begiztatzean... Nola nahi dela, nazionalismo askoren bidegabekeriak lotsarazten gaituen une hauetan, nik abertzale izaten jarraitu nahi dut. Zuek nahi izanez gero, han itxoinen dizuet aberkideen ametsezko lurralde ederrean.

Lurdes aipatu dut lehen, eta uste dut une egokia dela hari buruz hitz egiteko. Begi bistakoa da laneko kontzeptu eta testuetan hark duen lehentasunezko lekua, areago kontuan hartzen badugu Xabierrek zuen gogo bizia mundu honetako ibilbidea amaitzean harekin elkartzeko. Gurari horri dagozkion testuez gain, “VII. Gorde nazazu, Jauna” zatian, lekua egin nahi izan diot Lurdesek Hernaniko Urumea ikastolan gorputz adierazpena irakasten zigun garaiko melodia bati. “Nun zaude, eguzki?” nire subkontzientean atxikita geratu den melodia horietako bat da, orain berez azaleratu zaidana, Xabierrek bere poeman adierazten zuen haurtzaro hura girotzeko.

Hauorra nintzeneko jardín zaharrean sosegu dut orain
bide sotiletan, erramu busti geldian.
Han, aintzinako zeinukak ditut begiztatzen:
zuhaitza, lorea, erreten isila, iturri bizia.

Niri dagokidanez, gure haurtzaroko Lurdes hura emakume moderno gisa oroitzen dut. Ile motz koloreduna zuen, eta proposatzen zizkigun mugimendu eta dantzek izaera oso sortzailea izaten zuten, irekia eta askatzailea.




Hego Haizea naiz.
Loreen lagun den
Hego Haizea.
Eta txorien lagun.
Ipurtargi eta karakolen lagun.
Zakurren eta zozoen lagun.
Eta zuen, haurren lagun.



*Udara hontan ez da
sekular egiak aterako?
Lurdes Triando*

Era berean, gogoratzen naiz Xabierrek Lurdesi eta haurren zoriontasunari buruz aipatzen zuen esaldiaz: “Ume hauen zorionaren baitan dago gure etorkizuna”.



Horrela mintzatu zen Xabier zenbait urte geroago:

Guk gazte ausart, trebe eta seguru itxura genuen, baina nik ez nuen hori horrela bizi. Kanpotik pertsona aurrerakoi, ausart eta libre gisa ikusten gintuzten, baina gure egunerokotasuna bestelakoa zen. Agian baginen pittin bat ikonoklastak eta gure barruko itzal-argiak azaltzera ausartzen ginen, existentzialismo bitalistaren antzeko zerbait adieraztera. Gehienez jota ere, gu gerra ondorengo euskal gizarte abertzalearen gehiengo baina errebelde xegoak ginen, zerbait irakurriak ere. Baina ez ginen bakarrak. (*Hermes* 2002, 4. zk., 43.or.)

Estimu bereziarekin oroitzen naiz, berebat, 2000. urtean proposatu nien ekimenean Lurdesek jarri zuen interesaz: Xabierrek euskaratuta zuen Jacques Brelen abesti mordoxka grabatu eta editatzea eskaini nuen. Kantu haietako asko Erreterian emandako azken kontzertuan eskaini zituen Letek, eta, bertan aditzera eman zuen bezala, gustatuko zitzaion estudioan abestu eta grabatzea ere. Ekimenak, produkzio planari eta eskubideen kudeaketari zegokionez, aurrera egin zuen, Zornotzako Aurten Bai Fundazioaren arreta eta babesarekin. Lerro xumeotatik, eskertu nahi dizkiet beti eman dizkidaten laguntza eta animoak, bai orokorrean, AZTARNA proiektuaren sorreran, baita, konkretuki, Xabier Leteren ondarea jendarteratzeko lanean ere. Hor aritu dira, hasieratik, Andoni Unzalu eta Begoña Azarloza; eta, gaur egun, Mikel G. Etxebarria, *HESIA URRATURIK* proiektuarekin. Brelen inguruko ekimena ezin izan genuen gorpuztu, Xabierrek gainbehera larria sufritu baitzuen, behin betiko abestea eragotziko ziona.

Eta, lanak hezurmamitzeaz ari garenez, ezin ditut esker onez aipatu gabe utzi obra burutu ahal izateko bultzatzaile eta arduradun izan direnak. Iñaki Tolaretxipirekin, Landarbaso Abesbatza bikainaren zuzendariarekin, bi proiektutan aritua nintzen lehendik elkarlanean —25. urteurrena - *Konplize ditut eta*, eta *Laida Pilota*—, eta proiektu berriaz hitz egin nionetik interes handia erakutsi zuen. José Antonio Echeniquek, Iñakiren lagunak ere, izan zuen proiektuaren berri, eta laster etorri ginen bat Xabierrenganako genuen zorra kitatzeko asmoan. Haientzat, ez ditut esker on eta maitasun hitzak baino aurkitzen; proiektuan konfiantza izateagatik, eta, nire ahultasun uneetan, nik falta nituen fedea, motibazioa eta indarra emateagatik. Landarbaso abesbatzaren kalitatea, hala ahotsena nola gizatiarra, pizgarri bikoitza izan da obra idazterako unean.

2020ko apirilaren 5ean bukatu nuen, Erramu-igandez, *HESIA URRATURIK* idazten; hain zuzen, bizi izan balitz, Xabier Letek 76 urte beteko zituzkeen egunean. Ez dut kasualitateetan sinesten; beharbada, gehiago Cortazarren zori edo magiatan. Eta halaxe izan da ziurgabea obraren jendarteratzea 2020-2021 denboraldian. Lanaren zuzendaritza Juanjo Ocónen esku utzi dugu. Profesional bikaina da, inspirazioz gainezka dabil, eta, gainera, garaikidea dut. Elkarrekin egin genituen ikasketak Donostiako Musika Kontserbatorioan, eta patuak nahi izan du berriz elkartzeari, urte asko igaro ondoren. Izpiritua inoiz baino gehiago indartu behar izan dugun garaiotan, ziur nago gaitasun handiz transmititu dizkiola orkestrari biok ditugun pasioa, sentsibiltatea eta konpromisoa. Beste horrenbeste esan dezaket Miren Urbietta-Vega eta Beñat Egiarte bakarlariei buruz. Lehendik ere ongi frogatua zuten aparteko maila, eta hala erakutsi dute *HESIA URRATURIK* proiektuan ere, bai 2020ko abenduaren 5eko estrainaldian, Donostiako Kursaalean, Xabier Lete hil zela (2010-12-04) hamar urte bete zirenean, baita ondoren etorri diren emanaldietan ere.



Esker-emate zerrendarekin bukatzeko, Xabier Paya aipatu behar dut. Hasieratik hitzeman zigun Getxoko Muxikebarri auditoriumeko ateak irekiko zizkigula bigarren emanaldirako, eta obra grabatzeko eskaintza eta borondatea ere erakutsi dizkigu. 2016an, Donostia Europako Kultur Hiriburua izan zenean, garbi geratu zen Leteri dagozkion gaiek elkarrengana hurbiltzen gaituztela. Xabier Paya izan zen Leteren *Gabon*, *Txirrita* antzerti lanaren bigarren emanaldiaren eta edizioaren arduradun nagusia. Bidenabar, biziki gomendatzen dut “La eta Le” izeneko artikulua irakurtzea (*Berria*, 2018-12-04), zeinarekin guztiz bat natorren.

Neketsua bezain beharrezkoa den alderdi teknikoan, José Manuel Crespori zor dizkiot musika idazteari dagozkion hainbat laguntza eta irakaspen. Akordeoia irakasten zuen irakasleak behin esan zigun: “Zeru sabaian zenbat izar dauden jakin nahi baldin baduzue, galdetu iezaiozue Crespori, ziur hark badakiela”.

Bernardo Atxaga lagunak behin esan zidan: “Hik liburua daukak barruan, eta, hik idazten ez baduk, nik egingo diat hiregatik”. Atxaga, lagun, mugak jarri beharko dizkiogu liburu horri, biok dugun hitz-jarioa kontuan harturik. Hasieran, beldur nintzen ez ote nintzen gai izango sinfonia eta koru musikako obrari 30 minutu baino areagoko iraupenik emateko. Orain ikusten dut 60 minutuak ere aise gainditu dituela. Espero dut entzuleak ez gogaitzea.



Ez dakit Atxagaren *Lu eta Le* (2016) antzerki lanak behar adinako oihartzuna izan ote zuen. Merezi luke, halaber, Atxagak Xabier hil eta laster idatzitako “Lete, azken gorazarrea” poema ederra irakurtzea (*Caravansari* 6). Hemen jarriko dut poemaren amaiera:



Ulertzen haugu. Nola ez, ba?
Baina hik ere ulertu beharko duk,
eta ez bakarrik otsailean ari naizelako,
Otsoaren alde jartzea,
eta egloga bat bezala hasi den gorazarre hau,
“Zeinek esan behar zigun guri...”,
demanda bat bezala bukatzea:
Gure artean bizi behar baduk
ez hadi izan bakarrik
Xabier Lete Lehen;
egunak zeuzkaagu aurrean,
100, 500 edo 20.000,
denak bizi beharrekoak,
eta bizitzeko uh uh uh uh
Otsoa ere behar diagu;
behar diagu Xabier Lete Bigarrena,
Lehenarekin bat zena, auskalo nola.

Xabierrek esaten zuen leialtasuna gure gizartean modatik joanda zegoela, baina harentzat oso garrantzitsua zela. Batez ere, pentsatzen zuen sentimenduetan iraun behar zuela, sinesmenetan, usteetan eta pentsamoldean. Leialtasunaren adibide gisa, Xalbadorrek bere emazteari eskaini zizkion maitasunezko hitz hunkigarriak aipatzen zituen, presaka bizi diren etorkizuneko belaunaldi esperientziarik gabekoak ohar daitezen:

Maitasunezko iguzki batek gaduzka bere gerizan,
o mement baten epearentzat Jainko banindaike izan!
Mana nezoke iguzki horri nehoiz ez dadila etzan,
zorionezko bizitza hunek azkenik izan ez dezan.

Bihotzaren txokorik gozoenean daramat gordea *Egunsentiaren esku izoztuak* liburuan idatzi zidan eskaintza, Urnietan, 2009ko otsailaren 26an:

Goxan Goikoetxea
adiskide leial eta lankide prestatuari,
bizitzaren poz eta zaurietatik
sortutako
poema hanek.
Bihotz-bihotzez.

Xabier Ibañeta

Barruan gordea daramat esaldia, leialtasun sentimendu horrek ihartu gabe iraun dezan nire izpirituan, eta bizitzako ibilbidean gida nazan.





Lagun batek, Ataungo Jabier Imazek, Xabierri eskaini zion poema batekin bukatu nahi dut. Xabierrek Ataunen egin zuen bere azken agerraldia jendaurrean, Jabier lagunari omenaldia egitera joanda. 2010eko maiatzaren 8a zen. Maitasuna airean.

Eskerrik asko Jabier, hire baldintzarik gabeko laguntasun, bihotz emate eta lan egite nekaezinagatik. Besarkada bat.

XABIER LETERI MAITASUNEZ ETA MIRESMENEZ

Xabier Leteri maitasunez eta miresmenez
Zuk, zuk irakatsi zenigun hainbat gauza...
Lehenik, zuk irakatsi zenigun,
odola darion bihotz zaurituari soilik
isurtzen zaizkiola poema gordinenak, hunkigarrienak...
min-arantza atera nahian.
Gero, irakatsi zenigun, halaber,
aberria ohi dugula maite,
ez dugula maite oihukatuagatik ere,
gu geu baino indartsuagoa delako
sorrarazten digun sentimendua,
ikusiezinezko harekiko hari loteslea.

Eta nola ahaztu asaba zaharren baratza
lanbrotsu eta ilun dagokigula esan zenigula,
ez dugulako ikasi haiek aldaturikoa behar bezala ustiatzen,
elkarren arteko hika-mika eta irainetan
gehiegi egotzirik gure izerdiak?

Nola ahaztu, beste hainbat zure sentimen artean,
usadioaren usadioaz ezagutzen dituzun egoitzetan
sumatutako bakardade, bihotz hustu eta aho-gustu mingotsa
maisuki bezain lazgarriki deskribatu dizkiguzula...?

Herio-ohetik arreta minberatuz
oinazeari galdegin ohi diozula
joan zirenaz, urruneko elegiaz eta leinu arrotzaz ere,
nola ahantzi?

zure lagunei, agian, edari suspengarrietako isletan
euren buruek murgildurikoei,
ezin egotzi izan zeniekeela ezer
zeu ere haize leun bezain hezeari
zentxezkiolarik aitortu aurretik?

Baina gaixotasunak berekin daramatzan
erruki, adeitasun eta galtzailearen etsipenaz
mintzo zinela, berariaz ez bazen esana ere, nola ahaztu?

Agian, arratsaldeko argiari
eskaini dizkiozu zure begirada xamurrenak, nostalgikoenak,
eta zure gogoeta sakonenak...
edonork senaz igarri dezakeena eta
zure soak trebeki zegiena,
zuk azaldu diguzu:
noizbait bide ertzean jartzen garela,
eta bizia denbora izanik dagoeneko,
gure arrangurak, jarrera etsiak direla,
mugazainen ontziarekin dugun hitzorduari
itxaroten gauden tarte osoan
hartzen ditugunak.
Ziurgabetasun gaua duin egin diguzu!

Maitasuna ezin izan zenuela
abestu, argitu zenigun aspalditxo.
Baina esaldi ezin ederragoz arrazoitu zenuen
zure ahal ezina.
Guk ere -zuk ezinda nola bada?-
ezin dezakegu abestu...
eta, are gutxiago, zureak bezain esaldi ederrez hornitu.
Baina, sentitu bai...
eta hagitz maite zaitugu
la sentitzen dugu!

Eluna Bianchite
Elar honer Silolite
7u, Joxan Gaihetea

et- Siote - 1 1 1

S. hater

2020

x11 26

atay